

Kultura

Alberto San Juanek bere bizitza ardatz hartuta bakarriketa bat taularatuko du Elorrioren eta Durangon, asteburuan > 11



Etxebizitza arazoaren aurrean, okupazioa irtenbide > 3

> Durangoko Salesen okupaziotik hilabetera, Atxondoko Barraski inguruan etxe bat okupatu dute

> Proiektuari Barraskilore izena ipini diote, eta ekintza "gardena, publikoa eta baketsua" dela adierazi dute

Akordioa sinatu dute Nanuk enpresan > 4

Elorrioko Nanuk enpresako grebalariek 63 egun eman dituzte greban. 90 lagun inguruk osatzen dute lantaldea eta horien erdia egon da greban. Grebalariek diote "borrokaren bidez" lortu dutela akordioa. Enpresa, berriz, ez dago pozik.

Mercadonak supermerkatua zabaldu gura du > 3

Mercadona enpresa lekua topatzen dabil Durangaldean, supermerkatu bat zabaldu ahal izateko. Hainbat kokapen posible aztertu dituzten arren, ezer ez dagoela sinatuta azaldu dute enpresako iturriek. Eskualdean 1.500 metro koadro inguruko denda zabaltzea da Valentziako enpresaren helburua.

R.P.S. 214/06



Podología A. Urreta

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMO SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea,
10, behea - 48200
DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

katerin ardoak

inaki uribe



Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Zaldibar > 4

Zaldibarko Udalak elkartasuna adierazi dio Castet Elkarteari

Iurreta > 4

Adifi jarritako isuna ofizioz berrikustea eskatu du udalak

Mañaria > 6

Eskola baten beharra eta harrobiak, herritarren kezkak

Abadiño > 7

EHNEk eta udalak hanburesategiak berabagai

Herririk herri

> DURANGO

Euskara jakin arren, gaztelaniaz egiten dira salerosketak

‘Salerosketak be euskeraz’ kanpainara merkatari gehiago batu gura dituzte



Oarbeaskoa, Azkue, Irigoras eta Iza prentsaurrekoa ematen, udaletxean.

> **MARKEL ONAINDIA**

Iazko irailean *Salerosketak be euskeraz* egitasmoa ipini zuten martxan, merkatarien eta bezeroen artean euskararen erabilera indartzeko helburuz. Harrera ona izan du, eta merkatari gehiagoren partaidetzagaz jarraitu gura dute ikasturte honetan ere. Ekimenagaz batera inkesta bat egin dute 188 komertziotan, eta emaitzek adierazi dute erabilera bultzatzeko politikak beharrezkoak izango dire-

la. Izan ere, merkatarien %75ek dio zerbitzua euskeraz eman ahal duela, baina %32k bakarrik erabiltzen du. Eta, bezeroen kasuan %18k darabilte. Beraz, euskara jakin arren, salerosketak gaztelaniaz egiteko ohitura daukate durangarrek.

ITG taldeak sortu zuen ekimena, udaleko euskara zerbitzuaren laguntzaz. Sustatzaileek prentsaurrekoa eman zuten atzo, balantzea egin, eta hurrengo helburuen berri emateko.

Bertan izan ziren ITGko Eneritz Iza, Aitziber Irigoras alkatea, Dendak Bai-ko presidente Guillermo Oarbeaskoa eta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendari Jokin Azkue. Bizkaiko Foru Aldundia eta Orue Eskola ere badaude babesleen artean. Lehenengo urte honetan 144 komertzioz parte hartu dute kanpainan. 230.000 txartel banatu dituzte salerosketak euskeraz egiten zituzten bezeroen artean, eta bost tablet zozkatu dituzte.

Magrebeko kultura eta ohiturak konpartitzen

‘Magreb Durangon’ izeneko jardunaldia antolatu dute, eta azaroaren 16ra arte garatuko dute

> **M.O.**

Udaleko Inmigrazio Sailak eta Bibliotekak *Magreb Durangon* izeneko jardunaldia antolatu dute egunotarako. Durangoko emakume magrebtarren Al-nour elkartearen laguntzagaz osatu dute egitaraua. Besteak beste, zinema, literatura, hitzaldiak, tailerrak eta haurrentzako ekintzak garatzen dabilta martitzenetik, eta azaroaren 16ra arte jarraituko dute.

Herritarrei inguruan bizi diren bizilagun etorkinen herrialdeetako eguneroko errealitate kultural eta soziala ezagutaraztea da jardunaldiaren oinarria: “Helburua, Durangon elkarrekin bizi diren kulturak batzeko eta partekatze lekuak bultzatzea da”. Eusko Jaurlaritzako *Liburutegiak topaleku* programaren barruan dago ekimena.

Bihar Magrebeko jokoak azaldu eta praktikatu dituzte, 12:00etan, liburutegian bertan. Gainera, umeentzako ipuin kon-

Etorkinen herrialdeetako errealitate kultural eta soziala ezagutaraztea da jardunaldiaren oinarria

talaria ere egongo da. Martitzenean, zine-foruma egingo dute, 19:00etan, eta egunean literatur tailerra, ordu berean. Barikuan ipuin kontalariak egongo dira 17:00etan –familia osoari zuzendua– eta 20:00etan. Zapatuan sukaldaritza tailerragaz amaituko dute *Magreb Durangon* jardunaldia; 11:00etan izango da, Behargintzaren egoitzan.

Jendurrean efikaziaz berba egiteko ikastaroa hasiko da

> **M.O.**

Manu Marañon prentsaileak jendurrean efikaziaz berba egiten ikasteko saioak eskainiko ditu azaroan eta abenduan, Ibaizabal ikastolan. Hilaren 15ean hasiko da euskarazko taldeagaz, eta barikuetan garatuko da. Zapatuetan batuko dira gaztelaniako taldekoak, eta hilaren 16an izango da lehenengoa. Apuntatzeko, gorospe.t@gmail.com helbidera idatzi behar da, eta matrikula 190 eurokoa da.

Ikastaroaren helburuak, berba egiteko konfiantza eta naturaltasuna lortzea, eta era bikoitzean komunikatzea dira, besteak beste. Gainera, komunikazioaren eragina handitzeko helburuz, mezua, egitura eta beste zenbait faktore sinplifikatzea proposatuko du Marañonek. Praktikak bideoan grabatuko dituzte, metodologia zehatz baten arabera.

Pobreziaren aurka egiten den lana kalera aterako dute

Pobreziaren Aurkako Astea antolatu dute hogei elkarte inguruk; gaur, solasaldia egingo dute

> **M.O.**

Pobreziaren Aurkako Astea martxan dago Durangon. Hogei elkarte inguruk antolatu dituzte ekintzak. Azaldu duteenez, Zubiguneak topagunean batzen dira talde horiek. Joan zen astelehenean ekin zioten egitarauari, eta datozen egunetan ere egongo dira ekitaldiak. Pobreziaren aurkako lana hainbat ikuspuntutatik aztertzea da antolatzaileen helburua. Baina herriko taldeen elkartasun lana goraiatzea ere gura dute. Maila orokorrago batean lantzen den *Zero pobrezia* kanpainara batu dira ekimen hauekin.

Gaur arratsaldean, 18:30ean, *Lagunkide* programaren inguruko solasaldia egingo dute San Jose Jesuitak ikastetxean. Gurutze Gorriak eta udalak ipini dute aurten martxan *Lagunkide*, herriko nagusiei laguntza emateko boluntariora programa. Boluntarioek eta erabiltzaileek euren esperientzien berri emango dute. Ba-

tegin ez elkarteak prestatu du solasaldia, eta eurez gainera, Geu Bek eta Jesuiten Etxeak ere parte hartuko dute. Hurrengo barikuan, 19:45ean, dokumentala eskainiko dute San Agustin kulturgunean, Uztartuz taldeak antolatuta. Azaroaren 18tik 23ra liburutegian egongo den erakusketak itxiko du egitaraua.

Zero pobrezia kanpainatik manifestu bat kaleratu dute, eta ohartarazi dute pobrezia hazi egin dela, besteak beste, murrizketa politiken ondorioz. Egoerari aurre egiteko, eredu alternatibo bat aldarrikatu dute, “hazkunde, kontsumo eta lehiakortasunaren mitoetatik ihes egiten lagunduko diguna”.

Pobreziaren aurkako lana hainbat ikuspuntutatik aztertzea da antolatzaileen helburua

Udalak Emakunden salatuko du Expo Feria iragartzeko kanpaina

Joan zen asteburuko Expo Feriaren kanpaina salatuko eskatu du Andereak elkarteak

> **M.O.**

Joan zen asteburuan Expo Feria azoka egin zen Landako Gunean, eta berau iragartzeko kanpainak hautsak harrotu zituen. Herriko faroletan eta barandetan ipinitako karteletan, emakume batek, azokara joan gura zuela-eta, baimena eskatzen zion gizon bati. Horrez gainera, gaztelania hutsean zeuden kartelak. EH Bildu izan zen kanpaina hori “publizitate sexista” zela kritikatu zuen lehenengoa, eta udalari kartelak kentzeko eskatu zion. Andereak elkarteak ere kritikatu zuen ostean, eta udalari eskatu zion Emakunden salatuko. Bada, udaleko ordezkariak adierazi dute salaketa ipiniko dutela.

Herriko hainbat lekutan agertu ziren Expo Feria iragar-

tzeko kartelak. Udalak berak ere kritikatu zuen kanpaina, baina ez sexismoa arrazoitzat hartuta. Euren esanetan, baimenik barik zeuden ipinita, eta euskaragaz lotutako arauak ere urratzen zituzten. Udal espazioak erabiltzen dituzten erakundeek euskara erabili behar dute euren pu-

EH Bildu izan zen kanpaina hori “publizitate sexista” zela kritikatu zuen lehenengoa

blizitateetan. Ondorioz, kartel horiek kenduko zituela azaldu zuen udalak. Durangon bakarrik ez, Iurretan eta Abadiñon ere agertu ziren kartelak.

> DURANGALDEA

Durangon lez, Atxondon ere etxe bat okupatu dute

Barraskiko etxe bat okupatu dute, Durangoko Salesen okupaziotik hilabetera



Barraskiko hiru etxe blokeetatik bat okupatu zuten joan zen zapatuan.

> MARKEL ONAINDIA

80ko hamarkadaren amaieran, Elorrioko Gaztetxearen okupazioak hazi bat erein zuen, eta 90eko hamarkada bukatzeaz zela ia Durangalde osoan loratu zen. Etxe hutsen atea domino fitzak lez jausi ziren bata bestearen atzetik. Gaur egun, okupazioa berriro hedatzen dabil, baina zentzu desberdinagaz. Aisialdirako alternatiba izatetik, bizimodurako irtenbide izatera pasa da. Egoerak eta beharri-zanak bultzatuta, bizitzeko edo proiektuak garatzeko okupatu dituzte Durangoko Salesen komentua eta Atxondoko Barraskiko etxe bloke bat. Mugimendu sozial autonomoa da.

Barraskilore izena ipini diote Atxondoko proiektuari. Joan

zen zapatuan okupatu zuten. “Ekintza gardena, publikoa eta baketsua da”, esan dute. Ingurune horretan bost etxe bloke eraikitzea aurreikusi zuten. Eraikuntza hasi zen, baina etxek eta gorabeherak izan ditu. Guztiz amaituta dagoen bloke bat okupatu dute; beste bat erdi eraikita dago. Esan dute promotoreak hanka egin duela herrian zorrak utzita, eta orain atzean dauden bankuak *banku txarra*-ren barruan daudela. Beraz, eraikitzeke egitasmoa blokeatuta dago. Etxeen egoeraren berri izateko, udalera gerturatu dira okupatzaileak. “Atxondoko herritarrok urte asko daramatzagu Barraskiko blokeen degradazioa ikusten. Eta bitartean familiaren etxetik

ezin irten gabiltza, gaur egun bizi ditugun lan eta giza egoeren ondorio”. Etxebizitza arazoari irtenbidea bilatu, eta eztabaida piztu gura dute.

Blokean lau etxebizitza daude laster bizitzen sartzeko moduan. Jende gehiagok beharra edukiz gero, okupazioa hedatuko dute: “Auzotar guztiek etxebizitza duina izateko aukera izango dugun espazio kolektibo bat sortu nahi dugu”.

Beheko lokal bat ere hartu dute, eta herriarentzat zelan zabaldu aztertzen dabilta: aisialdirako, kontsumo taldeentzat... Astero asanblada egin, eta bertan hartuko dituzte erabakiak.

Salesetan, ilusioagaz

Urri hasieran Durangoko Salesen komentua zaharra okupatu zuen lagun talde batek. Egoera gaitzak elkartu eta eroan zituen okupaziora. Bizitzeko eta ekimenak garatzeko asmoa daukate. Herriko hainbat lagunek interesa agertu dutela esan du kide batek, eta jasotako laguntza eskertu gura izan du.

Eraikinaren jabeak salatu egin zituen, eta joan zen astean hogeitaz lagun identifikatu zituen Ertzaintzak. Baina, jabeagaz hartuemanetan segitzen dute, eta lan egiteko ilusioagaz daude.

Mercadonak supermekatua zabaldu gura du Durangaldean

Eskualdeko hainbat leku aztertzen dihardute, supermerkatua non kokatu erabakitzeke

> JONE GUENETXEA

Mercadonak enpresak Durangaldean supermerkatua zabaltzeko asmoa du. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 25 denda zabaldu gura dituzte, eta horietako bat eskualdean kokatzea dute helburu.

Mercadonako iturriek baieztatu dutenez, supermerkatua eraikitzeke hainbat leku aztertzen dabilta arren, oraindik ez dute erabakia hartu.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 25 denda zabaldu gura ditu Mercadonak

Supermerkatu formatua izango lukeela azaldu du enpresak: janaria, edariak, maskotentzako janaria eta higiegi eta garbiketarako produktuak

1.500 metro koadro izango dituen supermerkatua izatea aurreikusi du Mercadonak

izango lituzke salgai. Beraz, etxetresnarik, arroparik edo libururik ez lukete salduko denda berri honetan.

Salmentarako 1.500 metro koadrodun espazioa izatea aurreikusi dute, eta baita biltegi lanak eta bestelakoak egingo lituzkeen beste gune bat. Apartakalea ere izango luke.

1.453 supermerkatuekin, 15 autonomia erkidegotako 46 probintzian dihardu, gaur egun, Mercadonak. Guztira, 70.000 pertsona baino gehiagok egiten dute lan enpresa horretan.

> OTXANDIO

Jubilatuen Eguna ospatuko dute domekan, Mainondon

Bazkaria, sari banaketak eta musika egongo dira

> J.D.

Domekan Jubilatuen Eguna ospatuko du Otxandioko Pasealeku jubilatuen elkarteak. Meza-oren ostean, 14:00ak aldera, Mainondoko gimnasioan dagoen gunean batuko dira bazkaritara 127 lagun. Bazkaria erdi bana ordaindu dute jubilatuen elkarteak eta udalak. Ohitura den legez, Izurtzako eta Mañariko jubilatuen elkarteko batzordeko

hiruna ordezkari ere gonbidatu dituzte. Bazkalostean, elkarteko emakume eta gizon nagusienak omenduko dituzte: Jakobe Garate eta Felix Garaigordobil.

Ondoren, udalak eta elkarteak prestatutako bina sari zotz egingo dituzte bertaratzen direnen artean. Segidan, briska txapelketako sari banaketa egingo dute. Musikagaz amaituko dute domekako ekimena.



Salesen komentua urri hasieran okupatu zuten, Galtzaretan kalean.

MACOBER
Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa
Eitua Industriagunea 66 BERRIZ
Tno 946827890 macober@movistar.es

Kupoi hau erakustearren %10eko deskontua
TTIPI - TTAPA
Iturriza kalea, 16 behea Berriz · Tel.: 946 033 845
arcoris, tuc luc, PIPO'S

hitz
liburudenda
artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

ELORRIO

Akordioa lortuta, lanera bueltatu dira Nanuken

Grebalariek esan dute borrokaren bidez lortu dutela akordioa; sinatu arren, enpresa ez dago pozik

> MARKEK ONAINDIA

Irailaren 3an Transportes Nanuk enpresan hasitako greba amaitu da. Enpresa eta grebalariek akordiora heldu dira azkenean. Laugarrenez batu dira negoziatzeko. Grebalariek esan dutenez, lan erreformatik babestuko dituen enpresa hitzarmena edukiko dute beharginek, eta kaleratutako ere beharrera bueltatuko da, baina beste enpresa batean: "Hirugarren enpresa baten baldintza duinetan sartzea lortu dugu. Zoritxarrez ez da enpresaren ekimen baten

ondorioz lortutako gauza bat, grebalarion borrokaren bidez lortutako zerbait baizik". Borrokatuz gero edozer gauza lortu ahal dela aldarrikatu dute. "Herri honetako langileok berriz ere lortu dugu hori erakustea".

63 egun eman dituzte greban grebalariek. 90 lagun inguruk osatzen dute lantaldea, eta horien erdia egon da greban. Enpresak %4ko soldata jaitsiera ezarri zien, eta aparteko sari batzuk ere ordaindu barik zeuzkan. Horregatik eta enpresa hitzarmen baten alde hasi zuten



Transportes Nanuk enpresako beharginak lanera bueltatu dira, akordioa lortu eta gero.

protesta grebalariek. "Oso gorrak egin zaizkigun bederatzita aste izan dira, baina akordio honek etorkizunean hartuemanak hobetzeko balioko duela uste dugu", adierazi dute.

Elorrioren eragin handia izan du gatazkak, eta polemika tamaina berekoa izan da. Herriarraren eta senideen babesa eskertu dute grebalariek.

Galdu izanaren sentsazioa

Enpresak akordioa sinatu du, baina ez dago pozik. Gerenteak azaldu du galdu izanaren sentsazioa daukatela: "Presioak handiak izan dira, eta azkenean sinatu behar izan dugu". Salatu du kamoiei harrikadak bota dizkietela. "Delinkuentzia, txantaia eta inposizioa" erabili dituzte grebalariek eta sindika-

tuek, gerentearen ustez. Urriaren 28an, Zarautzeko Eroskin kamioi bati su eman zioten ezezagunek, eta protestagaz lotu du.

Greba egin ez dutenek, duela aste batzuk adierazi zuten ez zutela negoziazioen bidez lortutako ezer onartuko. Baina, gerentearen arabera, adostutako enpresa hitzarmena langile guztientzat izango da.

Etxeetan irisgarritasuna sustatzeko ordenantza

> M.O.

Elorrioko etxebizitzetan irisgarritasuna hobetzeko ordenantza bat prestatzen dabil udala. Hori azaldu dute asteon prentsa ohar baten bitartez. Udaleko gobernu taldeak (EAJ) zirriborro bat idatzi du, baina oraindik osoko batzarrean onartzeke dago. Herriar guztiak euren etxeetara oztoporik barik sartu ahal izatea da helburua, azaldu dutenez. Horregatik, etxean obra egin gura dutenei bidea erraztu gura diete ordenantza horregaz.

Arauk eta baldintzak

Balitzko ordenantza berriaren arabera, besteak beste, igogai-

Herriar guztiak etxeetara oztoporik barik sartu ahal izatea da helburua, azaldu dutenez

luak eta arrapalak ipini ahal izango dira. Eta, horretarako, arautegia ezarri dute. Esate baterako, igogailuak instalatu gura dituzten etxe blokeetan, eskaileraren zabalera 80 zentimetrorara murrizteko aukera edukiko dute.

Prentsa oharrean ordezkariak adierazi dutenez, ikastetxe, zaharren egoitza eta osasun etxeetan obra horiek egiteko arauak eta baldintzak ere proposatu dituzte zirriborroan.

> ZALDIBAR

Elkartasuna adierazi dio udalak Castet Elkarteari

Herriko tabernen auzian inputatuta dagoen Castet Elkarteak mozioa aurkeztu zuen udalbatzarrean

> ITSASO ESTEBAN

Herriko tabernen auzian inputatuta dagoen Castet elkarteari elkartasuna adieraztea onartu zuten joan zen eguneko udalbatzarrean, Zaldibarko Udalean.

Elkarteak aurkezturiko mozioaren alde Bilduko sei ordezkariak egin zuten, kontra bozkatu zuten PP eta PSE-EEko ordezkariak, eta abstenitu egin zen EAJ.



Gaia udalbatzarrean eztabaidatzea eskertu zuten elkartekideek.

Armarria aztertuko dute Zaldibarren

> I.E.

2013ko udal aurrekontuko diru-izendapenetan 50.000 euroko gehikuntza egitea onartu zuten joan zen asteko plenoan. Aurreikusitako bako hainbat inbertsio egin

ahal izateko esleitu dute hainbat diru atal: udaberriko euriteek hondatu zuten espalo bat konpontzeko 1.300 euro, esaterako.

Gobernu taldeak azpimarratu du 600 euro bideratuko dituztela Zaldibarko armariaren inguruko ikerketa burutzera. Azken hamarkadetan, gobernu talde bakoitzak irudia bere erara moldatu duela azaldu du Arantza Baigorri alkateak: "Bada garaia gure armariako elementuak behin betiko zehazteko", azpimarratu du. Endika Mogrobejo heraldikan adituak egingo du azterketa, eta alkateak azaldu duenez, urtebetez jardungo du horretan.



Herriko taberna kudeatzen duen Castet Elkarteari.

Alderdiek euren bozka eman ostean, elkarteko kide batek hartu zuen berba: eskerrak eman zituen lehenengo, gaia udalbatzarrean eztabaidatzea aho batez onartu zutelako. "Ez da ekonomialaria izan behar jakiteko Herriko taberneak ez dutela sekula ETA finantzatu, nahikoa dutela bizirauteagaz", azpimarratu zuen elkarteko kideak. Sumarioan elkartearen kontra ez dagoela ezelako akusazio konkreturik, sumarioa "inkongruentea" dela, eta "epaiketa bidegabea" dela esan zuen.

rik, eta abstenitu egin zen EAJ. Herriko taberna kudeatzen duen Castet Elkarteari. Alderdiek euren bozka eman ostean, elkarteko kide batek hartu zuen berba: eskerrak eman zituen lehenengo, gaia udalbatzarrean eztabaidatzea aho batez onartu zutelako. "Ez da ekonomialaria izan behar jakiteko Herriko taberneak ez dutela sekula ETA finantzatu, nahikoa dutela bizirauteagaz", azpimarratu zuen elkarteko kideak. Sumarioan elkartearen kontra ez dagoela ezelako akusazio konkreturik, sumarioa "inkongruentea" dela, eta "epaiketa bidegabea" dela esan zuen.

Azaroaren 14an, etxebizitza eta ekipamenduz

Datorren egunean, 18:30ean, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren parte-hartze prozesuaren barruko hurrengo batzarra egingo dute eskolan. Uda aurrean egin zuten diagnosi fasearen ondoren, erabakiak hartzeko biltzen ari dira bigarren fase honetan. Mugikortasunaren gaineko erabakiak hartu zituzten urriaren 31ko lan saioan, eta herriko etxebizitzaren eta ekipamenduen egoera aztertuko dute azaroaren 14an.

> IURRETA

Adifi jarritako isuna ofizioz berrikustea eskatu du udalak

> AITZIBER BASAURI

Adif enpresari 224.000 euroko isuna jarri zion Iurretako Udalak, eta azken horrek prozedura baliogabe uztea eskatu zuen. Tramitera onartu zuen maiztean eskaria udalbatzarrean, eta, orain, hartutako ebazpena ofizioz berrikusteko prozedura hastea onartu du Iurretak.

Udalbatzarrean Abiadura Handiko Trenaren (AHT) lanak daroan enpresak aurkeztutako alegazioak atzera bota ditu, eta prozeduragaz jarraitzea onartu du: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari helarazi-

Daroan "jardueraren azterketari traba egiteagatik" jarri dio isuna Iurretako Udalak Adifi

ko diete udalaren ebazpena, zuzena izan zen ala ez esan dezan; hau da, deuseztasun-arrazoiren bat dagoen argitu dezan.

ETBren egoitzaren azpiegiturretan daroan "jardueraren azterketari traba egiteagatik" jarri dio isuna udalak Sustapen Ministerioaren menpeko enpresari. Hori ukatu egin du Adifek alegazioetan, baina, hori horrela izanda ere auzitegietan argitu beharko dela dio Iñaki Totorikaguena alkateak.



“Bezeroak gustura geratzea da guretzat inportanteena”

Eibarren 40 urteko esperientzia batu ondoren, Epoca Durangora heldu da; etxebizitzak altzariz janzteko proiektu integralak eskaintzen dituzte bertan

> JOSEBA DERTEANO

Amaia Iriondo dekoratzaileak oraintsu Durangon ireki den Epoca altzari dendari buruzko xehetasunak eskaini ditu. 40 urtean Eibarko dendan irmoki jarraitu duten ereduak dute abiapuntu eta jarraibide: Bezeroari erabateko harreta eskaintzea eta gogobeteta uztea.

Noiz ireki duzue Durangon Epoca?

Durangoko denda irailean ireki genuen. Eibartik gatozen enpresa familiarra gara; bertan, orain dela 40 urte martxan jarritako denda bat dugu. Beraz, urte askotako esperientzia zabala dugu sektorean.

Zer eskaintzen duzue?

Etxebizitzaren proiektu integrala eskaintzen dugu, besteak beste. Lehenengo eta behin, etxe baten erreforma egin behar bada, hark eskatzen duen kudeaketa osoa gure gain hartzeko aukera ematen dugu: iturgina, igeltseroa, argiketaria... Guztia. Ondoren, etxebizitza osoa altzariz janzteko ardura ere hartzen dugu, etxea hornitzeko behar diren

“

Erosketa bolumena kontuan hartuta, deskontuak ditugu urtea amaitu arte”

altzari mota guztiak eskainita: bainugelak, logelak, armairuak, saloiak... Estilo modernoan zein klasikoan. Bezeroen zerbitzura egoten gara; eurek, dituzten beharrianak zehaztu, eta guk eskakizun horien arabera jarduten dugu.

Zer produktuekin egiten duzue lan?

Kalitate handiko produktuak ditugu, gaur egungo merkatuak eskatzen duenaren arabera poltsiko guztietara egokitzeko modukoak. Eta bezeroaren aurrean erabateko garantia bermatzen dutenak. Beste batzuren artean Arrital Cucine, Dall’agnese eta Altamarea fabrikatzaile italiarrekin dihardugu elkarlanean.

Proiektu baten kargu egiten zaretenean zein da zuen erregela edo jarraibide nagusia?

“

Etxebizitzaren proiektu integrala eskaintzen dugu, besteak beste”

Guretzako inportanteena bezeroaren asebetetzea da, behin gure lana eginda, bezeroa gustura eta gogobeteta geratu dadila egindakoarekin; proiektu bat gauzatzen gauden bitartean une oro bere ardura dugula sumatu

dezala, eta edozein arlotan aholkuren bat behar duenean, beti hor gaudela sentitu dezala. Gure ibilbide osoan horixe izan dugu helburu nagusi, bai bezero partikularrekin, bai profesionalekin; hau da, sustatzaile, arkitekto eta abarrekin.

Urte bukaerara arte deskontuak eskaintzen ari zarete.

Durangon berriak garenez, jendea gu ezagutzera etor dadin animatu gura dugu, eta, gainera, urtea amaitu arte deskontu bereziak ditugula jakinarazi. Erosketa bolumenaren arabera izango dira, eta benetan interesgarriak. Etxean aldaketarik egitea buruan izanez gero, galdu ezin daitezkeen deskontuak.



> IZURTZA**Atxilotu bi, txatarregi batean lapurreta egitea egotzita****> JOSEBA DERTEANO**

Martitzen arratsaldean, Ertzaintzak Izurtzako txatarregi bateko langileen deia jaso zuen. Lagun bi txatarregian lapurreta egiten harrapatu eta bertan atxikita zituztela, eta hirugarren batek furgoneta batean ihes egin zuela jakinarazi zioten langileek Ertzaintzari. Orduan, polizia bertaratu, eta atxikita zeuden 19 eta 22 urteko lagun biak atxilotu zituen. Salaketak dio burdinazko materialagaz betetako orgatxo zeramatela aurkitu zituztela txatarregiko langileek. Gainera, Ertzaintzak ikusi zuen enpresa ondoko hesiak zulo bat zuela. Horiek horrela, indarrez egindako lapurreta egotzi diete. Durango-ko udalatzaingoak ihes egindakoaren furgoneta aurkitu zuen, eta gidariaren bila dabilta.

> MAÑARIA**Eskola baten beharra eta harrobiak dira herritarren kezka**

Herriko plan orokorra berrizteko partaidetza prozesuaren lehenengo ondorioak azaldu dituzte

> MARKEL ONAINDIA

Aurrera doa Mañariko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrizteko prozesua. Herria datozen urteetarako zelan egituratu aztertzen dabilta, eta momentuz aurkezpena eta tailer bi egin dituzte, diagnostiko faseari lotuta. Batzar guztietan 30 lagun inguru batu dira. Partaidetza prozesua gidatzen dabilen lantaldeak lehenengo ondorio batzuen berri eman du. Besteak beste, eskola baten beharra dagoela uste dute, eta harrobien egoeraz ere hausnartu dute.

Lantaldeko kideek azaldu dute harrobien gaia nabarmendu

egin dela. Alde batetik, aktibo daudenek sortzen duten zaratak eta hautsen deserosotasunak kezkatzen ditu herritarrak. Bestetik, harrobi zaharrak herriarentzat berreskuratu daitezkeela uste dute, funtzio berri bat emanez. Zerbitzuen arloan hutsuneak daudela diote pro-

Harrobi zaharrak herriarentzat berreskuratu daitezkeela uste dute, funtzio berri bat emanez



Batzarretan 30 bat lagun inguruk parte hartu dute.

zesuko partaideek, eta horren baitan sartu dute eskola bat izatearena. Garraio publikoaren falta ere agertu da ondorioetan. Baina, bestalde, ekipamenduak ondo daudela diote. Adibidez, kultur etxea, frontoia, eta udal-letxea aipatu dituzte. Mañarian bizitzeak dauzkan alde onak ze-

rrendatu dituzte, eta naturarekiko hartueman edo segurtasuna nabarmendu dituzte.

Diagnostiko fasea amaituta, proposamenak egitera pasako dira orain. Datorren egunean, azaroaren 14an, izango da hurrengo batzarra, lurren egokitasuna aztertzeko.

> MALLABIA**Konpost guneak eraikiko dituzte**

Bilketa puntuak kendu eta ekarpen guneak ipiniko dituzte Mallabiko herrigunean eta auzoetan

> JONE GUENETXEA

Asteon hasi eta urtea bukatu baino lehen, Mallabiko auzoetan lau ekarpen gune eta herrigunean lau auzo-konpost gune eraikiko dituzte. Beraz, egungo bilketa puntuak desagertu egingo dira, eta horien orde ez ekarpen guneak ipiniko dituzte. Etxola batzuk eraikiko dituzte, eta bizilagun bakoitzak bertara sartzeko gilitza izango du. Barruan, hondakinak bereizita botatzeko kontainerrak egongo dira. Aurten, Areitio, Goita, Gereia eta Hanbreko ekarpen guneak sortuko dituzte.

Datorren urtean ekimena herri osora zabaltzea da helburua, udal arduradunek azaldu dutenez. Ekarpen guneak, Mallabiko Udalak Debarrenako Mankomunitatearekin batera

“zaborraren kudeaketa on baten alde” agin duen apustuaren jarraitzea pausoa dira.

Iaz autokonpostaren inguruko kanpaina martxan jarri zuten, eta jakitera eman dutenez, “hainbat herritar ari da euren etxeetako zabor organikoa konpostatzen”.

Herriguneko biztanleek konposta egin dezaten lau auzo-konpost gune eraikiko dituzte: Ansoagan, Arteizen, Intxaurtin eta Mallabarrenan. Egurrezko itxitura baten barruan konpostagailuak ipiniko dituzte. Eta konpostagailu horiek nola erabili ikasteko formazio bilera antolatuko dute.

Autokonposta edo auzokonposta erabiltzen duten mallabiarrek %15eko hobaria izango dute zaborraren tasan.



Familiek etxeetan sortzen dituzten hondakinen %40 inguru materia organikoa da.

> BERRIZ**Zerga eta tasa gehienak KPIaren arabera igo dituzte**

Uraren zerga igo eta beste tasa batzuk izoztea erabaki du Berriko Udalak “faktura orekatzeko”

> AMAIA UGALDE

Aho batez onartu dituzte Berriko Udalan 2014ko ordenantza fiskalak. Igo dituzten zerga eta tasa gehienei KPI Kontsumo Prezioen Indizea igoko zaie, %2,2, eta beste batzuk izoztu egingo dituzte. Uraren tasa %3,4 igoko da, KPIa baino gehiago. Ur instalazio guztiak udalak kudeatzen ditu, eta Orland Isoird alkateak adierazi duenez, “Aldundiak diru-laguntza jasotzeko prezio bat zehazten du, eta horra heltzeko igoko da tasa”.

Uraren zerbitzua gehiago ordaindu beharko denez, saneamendua, estolderia eta kontadoreen tasak ez dituzte igoko, horrela “hiru hilabetero etxera heltzen den faktura orekatuagoa izan dadin”, azaldu du Orland Isoird Berriko alkateak. Zaborraren tasa %1 igoko dute.

Orland Isoirden berbetan, aldaketak hiru hilebeteroko or-

dainagirian euro bat edo biren igoera ekarriko du. Inguruko herrietan ordaintzen dutena aztertzen ibili direla azaldu du, eta Berrizko uraren eta zaborraren tasa eskualdeko merkeenak direla nabarmendu du.

Ibilgailuen gaineko zerga

Datorren urterako beste aldaketa esanguratsu bat ibilgailuen gaineko zergarena da. 2012an eta 2013an izoztuta egon da zerga hori, eta 2014rako %2,2 igotzea aurreikusi dute, orokorrean, ibilgailu guztien kasuan.

Gutxiago kutsatzen duten ibilgailuen zerga gutxiago igoko da: %0,83 igoko da 14 zaldi edo gutxiago dituzten autoentzako, eta 500 zilindrada edo gutxiago duten motorrentzako. Bilduko Xabi Zalduaren berbetan, “diferentzia sinbolikoa da, baina, behintzat, hor dago”.

Eliza eta ondasun higiezinak

Datorren urterako izoztu duten zergatako bat ondasun higiezinaren zerga da. Orain arte, elizak ez zuen zerga hori ordaindu behar, eta salbuespen hori kentzea erabaki dute, Francisco del Pino zinegotzi sozialistak proposatutakoa aho batez onartuz.

Erabakitze eskubidea eztabaidagai osoko bilkuran**> A.U.**

Herrira plataformako kideen atxilotetak salatzeke mozioa aurkeztu du Bilduk, eta osoko bilkuran erabakitze eskubidearen gaineko eztabaida piztu da. Mozioan gatazkaren soluziorako hiru oinarri aipatzen dira: oinarritzeko eskubideen defentsa, akordio politikoa eta erabakitzeke eskubidea errespetatzea. Azken puntu horrek eragin du eztabaida.

Orlan Isoirden berbetan, EAJ erabakitze eskubidearen alde dago, “baina ezin da izan ezinbesteko baldintza bakea lortzeko”. Gauzak “nahastea” iruditzen zaio EAJri: “Erabakitzeke eskubide barik gatazkak jarraituko du? Zer eratakoak?”. Bilduko Xabi Zalduaren berbetan, “Españian saldu dute gatazka armatuaz amaitzea gatazka amaitzea dela, baina gatazka politikoa hor jarraitzen du, eta ez da amaituko erabakitzeke eskubidea bermatu ezean”.

PSE-EEko Francisco del Pinoren ustez, erabakitze eskubideari buruz berba egitea “etxea teilatutik hastea” da. Herrirako atxilotetei buruz, PSE-EEK “operazio judizialei errespetu handia” diela azaldu du: “Ikusiko dugu zer erabakitzen duten”.

Mozioa EAJk egindako aldatetekin onartu zen, Bilduren abstentzioagaz eta PSE-EEren kontrako botoagaz.

> DURANGALDEA ASTEON**Askapenako brigadistek Palestina berbagai Elorri**

Palestinaren egoeraren berri eman eta bertako errealitatea ezagutarazte helburu duen hitzaldia antolatuko dute biharko, Elorri. Askapena kolektiboko brigadistek Palestinan bizi izandakoa kontatuko dute zapatuan, 18:00etan, Elorriko Gaztetxean. Atzo beste hitzaldi bat izan zen 'Boikota Israeli' izenburupean.

Silboberrik Durangon eskainitako emanaldia ETBn ikusgai, bihar

Urriaren 26an Silboberri Txistu Elkarteak emanaldia eskaini zuen Durangoko Landako Gunean. Besteak beste, Queen taldearen eta John Lennon eta Ennio Morriconeren abesti ezagunen moldaketak eskaini zituzten kontzertu horretan. ETBk emanaldi hori grabatu egin zuen, eta zapatu honetan, 22:30ean, eskainiko dute.

Entzumen urritasunari buruzko jardunaldiak domekan, Durangon

Udaleko Gizarte Ekintza Sailaren laguntzaz, Ulertuz Bizkaiko Hau Gorren Familia eta Lagunen Elkarteak askotariko ekin-tzak antolatuko ditu domekan, 11:00etatik 14:00etara, Andra Mariko elizpean. Entzumen galera dutenen errealitatea ezagutara ematea dute helburu. Hainbat jolas eta tailerren ostean, El beso de Klimt taldearen kontzertua izango da.

Elorriko Gazetan txahal afaria egingo dute hilaren 16an

Gazeta auzoko Lagunarte elkarteak txahal afaria antolatu du azaroaren 16ko zapatarako, 21:00etan, Elorri. Trikitilariak ere egongo dira jai giroa ipintzeko. Afarirako txartelak 25 euroan salgai daude soziedadean bertan, Lejarazu erretegia eta Parra tabernan.

> ABADIÑO**EHNEk eta udalak hanburgesategiak izango dituzte berbagai**

Polemika piztu da McDonald' sek eta Burger Kingek Abadiñorako dituzten proiektuen inguruan

> JONE GUENETXEA

EHNEk batzarra eskatu dio Abadiñoko Udalari McDonald' s eta Burger Kingek Abadiñoko Murueta auzorako dituzten proiektuei buruz hitz egiteko. EHNERen arabera, Zatikako Lurralde Planak argi dio "nekazaritza jasagarria" bultzatu eta garatu behar dela: "Errealitatean badagoelako aukera nekazaritza eta abeltzaintzan lanpostuak sortzeko, baina Abadiñoko Udalak aukera horri uko egin dio, zer eta, buelta eman orduko zabor-janari lotutako proiektuak besarkatzeko".

Jose Luis Navarro Abadiñoko alkateak EHNEko ordezkariekin batzartzeko "prestutasuna" adierazi du. Sindikatuari mezua helarazi dio prentsa ohar bidez. Alkateak EHNERi eskatu dio ez dezala "nahastu" bi jate-txe pribaturen irekiera posiblea udalak elikaduraren subirano-

tasunaren defentsan bultzatu dituen ekimenekin. Lizentziak prozedura arautuak direla gogoratu du, eta enpresa horiekin beste edozein kasutan aplikatzen den prozedura jarraituko duela.



McDonald' sek bi pisuko hanburgesategia zabaldu gura du Abadiñon.

Hanburgesategien irekieraren inguruan Navarrok duen jarrera kritikatu du Abadiñoko Bilduk: "Gure lehen sektoreak aldarrikatzen duen eredu sozioekonomikotik erabat alden-dua dago eredu hau".

Hanburgesategien irekieraren inguruan Navarrok duen jarrera kritikatu du Abadiñoko Bilduk: "Gure lehen sektoreak aldarrikatzen duen eredu sozioekonomikotik erabat alden-dua dago eredu hau".

> ATXONDO**Azokako postuen tasa kendu dute****> JOSEBA DERTEANO**

2014rako ordenantza fiskalen aldaketan artean bada bat herriko baserritarrak eta ekoizleak laguntzea helburu duena. Udaletxe azpiko arkupean astelehenero (goizetik eguerdira) egiten den ortuarien azokan postuak ipintzeagatik kobratzen zuten tasa (ia 8 euro astero) kentzea erabaki dute. Aurten arte postu bat bakarrik jartzen zen, eta bera herritik kanpoko. Baina, aurten atxondar batek postua ipintzeko eskaria egin du (askotariko produktu ekologikoekin) eta udalak onartu egin du. Herriko ekoizleen lana sustatzeko erabaki dute tasa hori kentzea.

Zientziaren Astea ospatzeko egitarau zabala prestatu du udalak

Berbaldi bi, dokumental eta antzerki emanaldi bana, eta tailerrak izango dira

> ITSASO ESTEBAN

EHUko ikerlariak eskainiko dituzte, astelehenean eta eguaztenean, Abadiñoko Zientzia Astearen barruko berbaldi biak. 19:00etan izango dira hitzaldi biak, Traña-Matienako Errota kultur etxean lehenengoa, eta Txanportan, bigarrena.

Arturo Alvarez-Bautistak eskainiko du lehenengo berbaldia, eta "kimikaren fama txarraren kontrako mezua" zabalduko du bertan: "Kimika-

ren aurrerapenei esker hobekak gabela eta gehiago bizi gabela frogatu" gura du. Minbiziaren tratamenduan "kimikak egindako ekarpenez" ere ariko da.

Joseba Bikandi medikuak eskainiko du azaroaren 13ko berbaldia: *Inmunitatea: infekzioak baino gehiago* izenburua du berbaldi horrek. "Gizakiok hainbat mikroorganismorekin sinbiosian bizi garela, eta horiekin orekan bizitzea beharrezkoa dugula" defendatuko du medi-

kuak, eta hori lortzeko jarraibideak ere emango ditu.

Berbaldiez gainera, dokumental eta antzerki emanaldi bana, eta 3 eta 14 urte artekoentzako tailer zientifikoak ere izango dira Abadiñon: azaroaren 12an, *Unibertsoari 12 begirada* dokumentala emango dute, eta *Oh!NDAS* antzezlan izango da 14an ikusgai. Errota kultur etxean izango dira hitzordu bi horiek; eta azaroaren 15ean, probalekuan, tailerrak.

Dendetan euskaraz egiten duten erosleak sarituko dituzte

Merkataritza eta ostalaritza arloan euskararen erabilera bultzatzea da *Abadiño, denda-taberna-jatetxeetan, euskaraz* izeneko kanpainaren helburua. Herriko denda, taberna eta jatetxeetan euskaraz berba egiten duten bezeroen artean 100 euroko 10 txartel zozketatuko dituzte kanpainan parte hartzen duten 120 establezimenduek. Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Errota kultur etxean egingo dute zozketa, 20:00etan.

> GARAI**Gaztedi Durangaldea martxan****> M.O**

Gazteria arloan politikak garatu eta sektoreari bultzada bat emateko sortu da proiektu hori. Durangaldeko beste zenbait udalekin batera parte hartuko du Garaik, udalbatzarrean aho batez onartu eta gero. Aurten, Aldundiak, Gaztedi Bizkaia programa eratu du. Eta, Durangaldean atal berezia edukiko du. Ikastaroak eta ikerketak proposatuko dituzte, besteak beste. 390 euro inbertituko dira Garain.



946 216 491 | Antso Estegiz, 1 Durango

IUNIK
ILEAPAINDEGIA

-20% Azaroan
%20ko deskontua
ile eta estetika lanetan
Kontsulta eta diagnostikoaren
bitartez zure estilora moldatzen gara

Ordutegia

Astelehena	14:30/20:30
Astoartek ostiralra	09:30/20:30
Larunbata	08:00/14:30

► Berbaz

Iñigo Karreto | Dendak Bai elkarteko ostalarien presidentea | Durangarra

“McDonald’s eta Burger Kingen aurrean, gure balioak indartu beharko ditugu”

Enpresa handien botere ekonomikoaren aurrean, Durangaldeko ostalariak eurenagaz jarraitzea beste erremediorik ez dute izango, Iñigo Karretoren ustez. Bertakoek eskaintzen duten eskaintza erakargarria da Karretoren arabera, eta “indarrak batu behar dira”



> AMAIA UGALDE

Durangaldera datoz McDonald’s eta Burger King enpresak. Zelan jaso duzu albistea?

Ostalaritzako jarduera araututa dago, eta udalek ezingo dute ezer egin hori saihesteko. Jokoaren arauekin ez gaudela ados? Botere ekonomikoak dutenak irabazle irtetea ez dugula gura? Hori beste gerra bat da. Baina arraroa egin zait. McDonald’s aspalditik egon da Durangon jatetxea zabaldu guran, baina Durangok eta inguruek ez zituzten baldintzak betetzen errentagarri izateko, biztanle kopuruagatik.

Ez da errentagarria, beraz?

Gauza berbera gertatu zen Telepizzagaz; jende asko egon zen interesatuta frankizia hartzeko, baina ratioek ez zuten ematen. Urteak daroaz zabalik, eta errentagarria izaten jarraituko duela pentsatzen dut.

Mercadonak ere Durangaldera etorri gura duela esan du.

Ez dut jakin. Zurrumurrua zegoen lehen mercadonak eta Eroskik hitzarmena zeukatela, batek nagusitasuna zuen lekuan bestea ez sartzeko. Mercadonako presidentek gero esan zuen hitzarmen hori ez zela existitzen.

Euskal Herrian 25 supermerkatu zabaltzekotan dira, eta bat Durangaldean izango da.

Arriandin-edo (Iurreta) izango ote zen entzun nuen zurrumurrua. Orain zoritxarrez, ekonomia dagoen moduan egonda, edozein leku uzten diete horrelako enpresei, eta ez dut uste oso garesti utziko dietenik. Baina hor ez dakit zelan egingo duten. Bizkaia Martxan merkatarien elkartetik dakidanez, Durangok merkatal-guneak eraikitzeko ratioaren muga gainditu du. Ez dakit zer zirrikitu legal aurkitu duten edo aurkitu ahalko duten.

AKI zabaldu zenean, hori plazaratu zuten merkatariek.

Bai, ordurako ratioa gaindituta zegoen. Oraindik zabalik dago prozesu judiziala, eta ea zer gertatzen den; orain arte Bizkaia Martxanek hasitako auzi guztiak irabazi ditu. Baina Mercadonagaz arazoa egon daiteke. Burger King eta McDonald’si ez die eragingo, txikiagoak baitira.

Orduan Durangaldean ezin dute Bilbondo lako bat egin?

Ez, noski. Legalki ratioek ez dute halakorik uzten. Teorian ez, behintzat.

“

Durangon ez gabilta garai onak pasatzen, baina kanpotik esan didatenez, beste batzuen erreferente gara, antza”

McDonald’s eta Burger Kingen etorrerara bueltatua, ostalaritzan zer eragin izango duela uste duzu?

Ez dakit. Ostalaritzan orain erdi ondo doan sektorea janari merkearena da, errazioena, janari erdi bizkorrarena. Terrazekin batera, orain funtzionatzen duen gauza bakarra hori da. Marjina gutxigaz, baina bai. Orduan, botere ekonomiko itzela daukaten horiek badatoz, ez dakit zer gertatuko den. Eragin, eragingo die. Zalantzarik barik.

Zelakoa da momentu honetan ostalarien egoera?

Durango, nire ustez, nahiko ondo ari da mantentzen. Guk txarto gaudela uste dugu, baina antza beste batzuk okerrago dabilta. Gu ez gabilta garai onak pasatzen, baina kanpotik esan didatenez, beste batzuen erreferente gara.

Zelan joan dira Sanfaustoak?

Nahiko ondo joan direla uste dut, eguraldiak asko lagundu du. Txosnek eta tabernekin leku askotako jendea erakartzen dute. Bidegabekoa dena da denok ez jardutea baldintza beretan lanean. Enpresa handiek dituzten erraztasunak ez zaizkit justuak iruditzen, baina horrez gainera, ostalaritzan denok ez dugu arma berdinekin jokatzeko.

Zergatik diozu hori?

Badirudi gazteen lokal batzuetan ostalaritza lana egiten dutela, baina ostalaritza mota horrek ez du zergarik ordaintzen, eta ez dauka inolako betebeharririk. Lonja askotan edariak saltzen dituzte. Hiru kuba-libre bederatzi euroan, garagardo bat euro batean. Eta ez dira gazteak bakarrik joaten, e? 40 urteko jendea entzun diot lonja horietara

joan izan dela. Horren kontra ezinezkoa da lehiatzea. Lokaletan erre egin daiteke, etzanda egon, lo egin... Bihurto gaitzen denok lonja! Lehen ikasten ez zuenak tabernan lortzen zuen lana, edo taberna bat hartzen zuen. Orain lokaleko edarien arduradun izan gura dute. Ez da arma berdinekin jokatzeko. Ez dute zergarik ordaintzen, ez daukate erantzukizunik, ez langilerik, eta inbertsiorik ere ez dute egiten.

Ohitura aldatetak, McDonald’s lako enpresen etorrera... Zelan irudikatzen duzu Durangoko ostalarien etorkizuna?

Durangok erakargarritasun nahikoa izatea espero dut. Denok lortu dezakegu gure lekua. Datozen enpresa handi horien aurrean gure ostalaritzaren balioak indartu beharko ditugu. Nik inoiz jan izan dut McDonald’s-en batean, eta egia esan, diru horregatik, edo apur bat gehiago ordainduta, gure sukaldaritzagaz askoz ere hobeto eta gozoago jaten da. Ostalariei kosta egiten zaigu gauzak elkarlanean egitea, baina bagabilta. Pintxo-potea ipintzea ere asko kostatu zen, eta orain, arrakasta lortuta, gustura dabilta.



HELBURU BAKAR BAT DAUKAGU,
27 UNITATE
60 EGUNEAN LIKIDATZEA.



ZORIONEKO 27 LAGUN HORIETAKO BAT
IZAN NAHI DUZU?



FORD KONDIA
PEUGEOT ETORMOBIL
Otaola etorb. 20600 EIBAR
Tel.: 943 207 650
Tel.: 943 200 966



ZIORLA AUTOAK
Santamaña kalea, 19
48215 IURRETA
Tel.: 946 217 130

www.fordkondia.com · www.etormobil.com

JUAN JOSE GASTAÑAZATORRE

PP


Krisiaren aurkako laguntza fiskal

Duela gutxi, gure abstentzioa tarteko, udalbatzarrak bide eman die 2014rako ordenantza fiskalei. Guztiok dakigu zenbaterainoko zailtasunak ari diren sufritzen durangar asko eta asko egun bizi dugun krisiaren ondorioz.

Herritarren ordezkari garen neurrian, gure egitekorik nagusienetako herritarren beharrezan zeintzuk diren ezagutzea da. Kanean gertatzen denaren inguruko zuzeneko informazioa eduki behar dugu: gure auzokideen arazoak zeintzuk diren ezagutu, eta euren eskaerak eta beharrak aintzat hartu.

Auzokide askok esan digute egoera zaila bizi dutela, eta zergen ordainketa, batez ere, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarena (OHZ), garesti egiten zaiela, eta, beraz, ahalegin berezi bat egin behar izaten dutela euren betebeharrak fiskalei erantzun ahal izateko.

Horregatik, Alderdi Popularrak proposamen bidezko eskaera bat egingo dio udal gobernuari: baliabide gutxien duten familiei OHZren ordainketa konpentsatu asmoz, laguntza zuzena arautuko duen udal ordenantza bat landu eta onartu dezala.

Gure proposamen hau ez da hitz eder hutsez osatutako proposamen bidera ezin bat, Bizkaiko beste udal batzuetan badagoelako guk proposatutakoaren antzeko ordenantzarik. Beraz, borondate politiko apur bat baino ez da behar. Hori, eta krisiaren ondorioekin gehien sufritzen ari direnekiko, hau da, langabetuekiko konpromisoa.

*Erredakzioan itzulua

Burger King eta McDonald's

EHNE-Bizkaia prentsaren bidez ezagutu du Abadiñon janari lasterra saltzen duten bi multinazionalak denda bana jartzekotan direla. Sindikatuak bere kezka eta harridura erakutsi gura du Abadiñoko Udalararen jarreraren aurrean, pozik baitirudi Burger King eta McDonald's bezalako multinazionalak herrian izateko aukerarekin. Lanpostu berrien sorrera hipotetikoa bezain faltsua da, baina udalak multinazionaloi alfonbra gorria jartzeko gogotsu dirudi, jakina denean lehendik dagoen sare sozioekonomikoa suntsitzen dutela eta elikaduraren zein kulturaren arloan bultzatzen dituzten ohiturak ez datozela inola ere bat elikagaien ekoizpen jasangarria eta elikadura osasuntsu eta orekatu batekin. McDonald's eta Burger Kingek ordezkatzeko duten nekazaritza, abeltzaintza eta ostalaritza eredu guztiz industrialak da, eskandalu eta iruzur sortzaile, dioxinadun oilaskoen eta behi eroen kasuek erakusten duten bezala. Kalitatea albo batera lagatzen dute, erabat; eta baita ekoizpenetik azken salmentara doan kateko etekin bantatze justua ere. Zer esanik ez erabiliko lukeen enplegu mota prekariarioari buruz. Eta guzti hori gutxi balitz, lehendik ere justuan biziraunez lanean diharduten denda txiki, taberna eta jatetxe askok euren etorkizuna kolokan ikusiko lukete.

Durangaldeko landa garapenari buruzko irizpideek eta Zatikako Lurralde Planak ere ikuspuntu kritikoa dute garapen mota honi buruz. Horren ordezkari nekazaritza ustiatzearen dibertsifikazioa bultzatu beharra azpimarratzen dute, produktuen transformazioa indartu beharaz mintzo dira, produktuok merkatu lokalean txertatzeko beharraz. Zatikako Lurralde Planak argi dio nekazaritza jasangarria bultzatu eta garatu beharra dagoela. [...]

EHNE-Bizkaia bilera eskari formala aurkeztuko dio Abadiñoko Udalari: lehenik eta behin zabor-jana eskeintzen duten bi multinazionalon balizko inplantazioari buruzko informazioa jasotzeko. Bigarrenik, Abadiñoko Udalari jarrera politiko koherentea exijituko dio sindikatuak, elikadura burujabetzaren eta nekazaritza ekoizpen zein kontsumo lokalaren aldeko hitzak izan baititu lehengoko egoera batzuetan.

Sindikatuak ekintza egutegia landuko du datozen asteetarako, eta horien artean asanblada irekia egiteko aukera planteatzen ari da.

EHNE-Bizkaia
Tantaz Tanta, Itsasoa gara

Durangoko jaietan Tantaz Tanta Eguna antolatu genuen lagunek eskerrak eman nahi dizkizuegu ekimenean lagundu zeniguten guztiei, eta baita ekintzetan parte hartu zuten guztiei ere. Benetan, estimatu genuen zuen babesa eta laguntza.

Ez dira momentu gozoak preso eta iheslarien eskubideen defentsan dihardugunontzat. Baina, azken asteetan inoiz baino lankidetzat handiagoa sumatu dugu eragile eta herritarren artean, eta horrek poztu egin gaitu. Argi daukagu arazo hau guztion artean konpondu behar dugula, herritar guztiok garelako ezinbesteko. Horrela bakarrik, herri-presioz, lortuko dugu Espainiako eta Frantziako Estatuen blokeo jarrera aldatzea. Badakigu itsasoak higatuko duela ukazioaren arrosa, eta itsaso hori osatzeko tantak batuko ditugu.

Azken asteetan egondako lankidetzat eta erantzunak jarraitpena izatea nahiko genuke, eta horretarako deia egiten diegu herritar zein elkarte guztiei. Motibo edo egoera desberdinak eduki arren, denok gara mugimendu bereko tanta. Baditugu ekarpenerako hitzordu berriak: abenduaren 7an, Durangon, Olatua-n, eta urtarrilaren 11n Bilboko manifestazioan.

Tantaz Tanta herri ekimena
Burger King eta McDonald's-en irekieraren aurka

Pasa den astean enteratu ginen prentsa bidez, gezurra badirudi ere, gure herrian bi multinazional horiek negozio bana zabalteko zuten asmoa, eta gure harridura erabatekoa izan zen alkateak berak proiektuok babestu eta positibotzat jotzen zituela irakurtzean. Bere esanetan negozio horien irekierak lanpostu berriak sortuko dutela dio, baina ez du ezer esaten multinazional horiek sistematikoki egiten dituzten kontratu prekarioez, ezta langileek dituzten lan baldintza prekarioez.

Bestetik, tokiko ekonomian izango duen eragina ere ez du ikusten antza denez, izan ere, komertzio txikietan eta ostalaritzan izango du bere eragina negozioon irekitzeak. Herri nukleoetatik kanpo eta hipermerkatu handien inguruan kokaturik, gune komertzialak sustatzen ari direlako tokiko ekonomia-aren kaltetan. Horregatik salatzea da alkatearen jarrera, herriko komertzioa babestu ordezkariarentzat onurarik ekarriko ez duten multinazionalen errokatu eta alfonbra gorria jarri dielako.


Zer esanik ere ez, gure lehen sektoreak aldarrikatzen duen eredu sozioekonomikotik erabat aldentzea dagoela hanburgesategi hauen eredu, izan ere ez daude tokiko ekonomian oinarrituta, ez eta elikadura osasuntsu eta kalitatezkoan, kontsumo masiboan baizik. Guztiz kontraesankorra, aurtan bertan Abadiñoko Udalean eskola jantokietarako manifestua onartu ostean, jantoki horietarako bertako produktuen kalitatezko kontsumoa sustatzearen alde agertu zirelako.

Horregatik, gu ez gara Burger King-ek eta McDonald's-ek bultzatzen duten kontsumo ezta elikadura ereduaren alde lerrotatuko, eta eskatuko dugu Abadiñoko Udala tokiko kontsumoaren eta elikadura burujabetzaren defentsaren alde lerrotatu dadila.

Abadiñoko Bilduko zinegotziak

Errekek garbi mantendu behar ditugu

Abadiñon, Mendiolatik Zelaietarako bidetik paraleloan doan errekatik ateratako zakar multzoa erakusten du goiko irudiak. Zakar horiek batu ditut, baina gehiago daude oraindik atera barik. Errekek garbi mantentzeak denon lana izan behar du. Inguruko enpresak, inguru hartan bizi garen herritarrek... Era berean, urriaren 12an isuri beltz bat ikusi nuen inguruko enpresa batetik errekarara jausten. Ez da kontu berria. Sasoi batean sarritan salatu nituen isuri horiek eta erakundeek neurriak hartu zituzten, beraz, ezin dut ulertu zelan gertatu den berrero. Lotsagarria iruditzen zait eta berrero horrelakorik ez gertatzea itxaroten dut. Alfonso Moya

Laguntzaileak:


2013ko azaroaren 8a
11. urtea - 521. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretzi Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.
Maketazioa: Eider Alberdi.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga.
Argazkilaria: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

Alberto San Juan | Madril, 1968 | Aktorea

“Neure buruari egiten dizkiodan galderak planteatzen ditut obran”

Bere bizitza ardatz hartuta, Espainiako Estatuaren azken 45 urteetako historia hartzen du ahotan Alberto San Juan aktore madrildarrak ‘Autoretrato de un joven capitalista español’ bakarrizketan



> ITSASO ESTEBAN

Berak idatzi eta antzeztzen duen ‘Autoretrato de un joven capitalista español’ obra eskaintzera dator Alberto San Juan aktorea Durangaldera. Bihar, Elorriko Arriola antzokian eskainiko du umore garratzeko emanaldia. Abenduaren 15ean, eskualdean izango da berriro: Durangoko San Agustin kulturgunean eskainiko du bakarrizketa.

Apirilean estrenaitu zenuen obra. Zelako harrera egin dizu orain arte ikusleak?
Oso ona, egia esan. Uste dut, gauzak daudden bezala, antzoki batean edo dena delako lekuan, gertatzen ari zaigunaz berba egiteko elkartzea beharrezkoa dela.

Zer ari zaigu gertatzen?

Oso erreta gaude erakundeetatik, Ibox 35eko enpresa handietatik eta bankueta-

tik jasaten ari garen eraso honegaz. Jende asko ari da sufritzen. Jendeak beldurra eta amorrua dauka barruan, eta horrelako egoeran egin dezakegun gutxiena da guzti horretaz berba egitea. Nik aztoramen handia nabari dut jendeagan, eta komunikazio estua lortzen dugu emanaldietan.

Obraren egilea eta antzezlea zara. Berria da zuretzat horrela lan egitea?

Bai, eta bakarrizketa bat egiten dudan lehenengo aldia ere bada. Nire bizitzari buruzko bakarrizketa da: 1968an jaio nintzenetik, nire ibilbidea kontatzen duena. Nire bizitzari buruz jardutean, nire herrialdeari buruz dihardut.

Zerk eroan zintuen obra hau sortzera?

Begiak lotuta geundelako sentsazioak, eta begiak zabaldu eta hemen zer gertatzen ari den ulertzeko beharrak eman zidan indarra. Beharizan horretatik sortu zitzaidan, gero, atzera begiratzeko beharra ere: hona zelan ailegatu garen ulertzeko, eta egungo demokraziaren ahultasuna ulertzeko, Espainiak diktaduratik demokraziarako bidea zelan egin zuen ulertzea ezinbestekoa da. Ezjakintasunean eta beldurrean dago oinarrituta boterearen gehiegikeriak ahalbidetzen dituen egungo itun soziala. Gizarte demokratiko batean botereak komunitateen erabakia izan beharko luke, eta ez gertatzen ari zaigun bezala, talde batek besteari inposatzen dion zerbait.

Autokritikatik asko dauka obrak.

Bai, izan ere, gauzak aldatzeko beharrezko pausoa dela uste dut. Norbanako bezala, sistemarekin kolaboratzen dugu egunero,

eta hori egiteari zelan utzi da, nire ustez, gakoa. Edozelan ere, bakarrizketa komikoa da Elorriko eskainiko dudana *Autoretrato de un joven capitalista español*.

Zelan izan daiteke komikoa?

Batetik, komedia oso gustuko generoa dudalako, eta bestetik, umorea ezinbesteko tresna iraultzailea dela uste dudalako. Umorerik bako iraultza porrotera kondatua dago. Neure buruari egiten dizkiodan galderak planteatzen ditut ikuskizunean, eta batu dudana informazioa eskaintzen diot ikusleari.

Zeintzuk dira galdera horiek?

Esate baterako: Jarrai dezakegu banku kapitalista espekulatzaile batean kontu korrontea edukitzea? Jarraituko dugu argindarra oligopolioko enpresa iruzurgile bati ordaintzen? Jarraituko dugu hirugarren munduan esplotaturiko langileek egindako produktuak saltzen dituzten merkataritza-guneetan erosten?

Zelakoa izan da sormen prozesua?

Hasteko eta behin, dokumentazio lan handia egin dut: asko irakurri dut, eta aipatzen ditudan gaietan aditua den jende askorekin berba egin dut.

Emango irakurritakoen adibiderik?

Hamabost liburu inguru izan dira lan hau egiten lagundu didatenak. Esaterako, Joan Garcésen *Soberanos o intervenidos*, Espainiako trantsizioa ulertzeko liburu oinarritzakoa da. Estatu barruko zein kanpoko botere antidemokratikoek trantsizioan zelan eragin zuten kontatzen du. Bibliografia oso zabalagaz jardun dut: *La CIA en España*, *La transición sangrienta* edo *Los amos del mundo* dira beste irakurgai gomendagarri batzuk.

“


Aztoramen handia nabari dut jendeagan, eta komunikazio estua lortzen dugu saioetan”

Autokritikarako joera horri lotuta, krisi ekonomiko honen aurretik langileria bere ahalmenen gainetik bizi izan dela dioen teoria ere bolo-bolo dabil. Zer iruditzen zaizu teoria hori?

Masa komunikabideek bultzatzen duten sistemaren propagandaren parte da hori: gezur hutsa. Inor ez da bere ahalmenen gainetik bizi izan. Norbaiti entzun diodan moduan, egin duguna, gure beharriaren azpitik kobratzea izan da. Horren antzeko beste kanpaina bat bizi dugu orain: medioen bitartez zabaltzen ari diren diskurtsoa da, krisiaren amaiera gertu daukagula, eta gezur handia da hori ere.

Luze jo al dizu obra sortzeak?

Sekula amaitzen ez den prozesu bat da, batetik, inprobisazioak ere bere lekua daukalako, eta bestetik, gelditu barik nabilerako ikuskizunean gauza berriak sartzen: nahi nukeen guztiari buruz ezin dut berba egin, gehiegi luzatuko litzatekeelako ikuskizuna, eta horregatik, emanaldi bakoitzean aldaketak sartzen ditut.



> MUSIKA

Inprobisazio saio batek abiatuko du XXIV. Jazz-Blues Jaialdia

Elorrioko Ateneoan izango da lehenengo kontzertua, azaroaren 14an



Little G. Weevil blues sortzailea gonbidatu dute azaroaren 16rako.

> **ITSASO ESTEBAN**

Denera zazpi kontzertu bilduko ditu Arriolako Jazz-Blues Jaialdiaren XXIV. edizioako programazioak. Bertako jazzlariekin zein nazioarteko taldeen emanaldiak izango dira Elorrioko

hiru aretotan: Ateneoan, Arriolan, eta Portalekua tabernan.

Jazz inprobisazio saioak zabalduko du, azaroaren 14an, jaialdia, eta azaroko bi asteberutan, hiruna blues eta jazz kontzertu eskainiko ditu jaialdiak.

Jaialdiko lehenengo asteburuan, Euskal Herrian sorturiko bi jazz talderen eta Hungarian jaiotako blues sortzaile baten emanaldiak izango dira, Elorrioren. Azaroaren 15ean, 22:30ean, Ateneoan, Musikenen

zebiltzala bost jazzlari gaztek sortu zuten RS Faktor boskotea ariko da. Jazz inprobisaziorako, pianoa, kontrabaxua, bateria, saxo tenorra eta tronpeta erabilizten dituzte.

Bestetik, Hungarian jaio eta musikari bezala AEBetan hezitako Little G. Weevil musika egilea bi taldekide lagunduta ariko da azaroaren 16an, 22:30ean hasita, Ateneoan. Hungariarrak 80ko blues sortzaileen arima eta soinua ekarriko ditu Durangaldera.

Bertako jazzlariekin zein nazioarteko musikariek emanaldiak izango dira Elorrioko hiru aretotan

Jazz-Blues Jaialdiko lehenengo asteburua ixteko, Raul Romo eta Hasier Oleagak sorturiko Maracas para dos taldea gonbidatu dute. Azaroaren 17an, 20:30ean hasita, jazz eta funka eskainiko du talde horrek, Elorrioko Portalekua tabernan.

GEURE DURANGALDEA

LIBE MIMENZA
Kazetaria

**Artaziak**

Krisiaren aitzakian eta denon hobe beharrez artazien desfilea abiarazi zuten aspaldi. Behin hasi, eta ezin geratu, artazien desfile militarren adikto bihurtu dira. Artaziak ugalteko betebeharra hartu dute bandera. Eta azkenean, marra gorriak ere gainditu ditu artazi armadak.

Nabari da gabezi larri bat bizi izan zutela –traumaren bat seguru– modu anker horretan hezkuntza erasotzeko. Ezjakintasunak soilik justifika dezake basakeria. Ditzuten curriculumekin, besteonak zuzentzen hasteko azala behar da gero!

Titulitisaren infekzioa pandemia bihurtzeraino erein dute, eta behin hezkuntzaren labirintoa eraikita, orain, gure lepotik aberastu nahi dute. Merkatuaren logikaren arabera hezkuntza, merkatua bera sostengatzeko.

Baina azoka honetan, merkealdia kalitatearentzat besterik ez da opari: lehen bezain tonto aterako gara, baina denbora eta diru gehiago beharko dugu.

Hezkuntza legea, berriz, enkantean darabilte, erantzukizunari oporrak emanda. Lomcek *wertigoa* ematen du bai, baina zorabioaren sintoma besterik ez da. Sistema zentralizatuaren kateak apurtu eta legeak hezkuntza komunitatearen esku izatea lortu arte, batzuen kapritxoak guztion kaltea eragiten jarraituko du.

Hezitzaile, guraso eta ikasleok ezetz esan dugu dagoeneko, baina ezetz esatea ez da nahikoa. Gure azterketa nazional propioa pasarazteko ordua heldu da: guk-haiei.

Artaziak geureganatu ditzaun. Atzamarrak moztzen hasteko garaia da.

> **KRONIKA** > KANTUAREN KANTOIA 2013, PLATERUENA. BELAKO

Hamlet gugan

> **AINHOA URIEN**

Kaxa beltz bat Plateruenean. Antzinako *matadero*, zilarategi, plateruen izenak tinko eusten dio kulturaren altoari. Kasualitatez, edo nahi gabe diote haiek, denboraren azkartasunak eraman du Belako auzoko aitonaeren tailerretik muga

nahigabetuz gaindi, Belako izatera. Urte bi pasatxo eta oso "gu" zale ez izanagatik ere, gitar sentitzen dute musika gazteek, esan dezaten ez dela lehenagoko zaratarik entzuten kaleetan; isildu gabe ere hitz egin daiteke, eta bitartean, musikaren indarrak sutuko ditu biho-

tzak eta beteko dira kaleak, astinduak izango dira, kiskaliko dira. Liburua esku artean hartu, azalari putz egin barruko hautsak kendu nahirik, eta Shakespeare hitza agertu itzaletatik bezala, Hamlet nire esku ahurren gainean. Ez nuen uste izango orduan horrenbestetan agertuko zitzaidanik berriro suizida haren itzala, baina, hildakoek ez omen dute itzalik, hala ere, maitasuna uz-

ten dute hutsunearen gainetik. Eta gaur berriz Hamlet, isabeldar antzerkietako lorategi infinituak, Ofelia ibaian, harri pila poltsikoan, eta bizitzari zor diogun heriotzaz berbetan. Williamek berak ere ez luke irudikatuko Hamlet hartatik post-punkerako jautzia, baina hemen ere iluntasuna nagusi, eta hara non dioten musikariek antzinako printze hura dela ispilu. Baina ez dira iraganen iltzatzen, eta ozeanoz bestaldeko lur zatietan ere badaude, asfaltozko oihanetan beroak zerumuga lausotzen duen hirietan, euriak estali ditzala hots eternalak, piztia hiritarren inbasioa profitatuz ametsak idazten ditu artistak, ez letraz soilik, baina memoria ezabatu, eta pauso anonimoek bidean arrastoa uzten dute.

Segi dezagun paperak zikintzen, zuritiesunak ez gaitzala itsutu, eta artistak badu bai zeresana, iraultza artetik jaioko da, bestela, nekez izango da.



Hemen agertu gura badozu

deitu!



946 217 902



INUNGANE. SUSTRAIAK AIREAN

Karrika Antzerki Taldea
Azaroak 8 • 20:00



TEMPUS-i

Anakrusa Dantza Taldea
Azaroak 9 • 20:00



Elmer elefantea

Teatro de la Luna (Madrid)
Azaroak 10 • 18:00

San Agustín
KULTUR
GUNEAK
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



AZAROAK 8 - 22:00etan 10/12euro
SARA ESCUDERO+IÑAKI URRUTIA
BAKARRIZKETA



AZAROAK 13 - 20:00ean DOAN
AUDIENCE KANTUAREN KANTOIA
BERBALDI MUSIKATUA



AZAROAK 15 - 20:00etan DOAN
TXELU ANGOITIA

"Bestearen begirada" + Musika zuzenean

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

> DANTZA

Bizkaiko emakume dantzarien I. topaketa egingo dute Durangon

Durangoko Tronperri eta Txoritxu Alai taldeek antolatu dute Ezkurdi plazako biharko hitzordua

> ITSASO ESTEBAN

Azaroaren 9an, 18:00etan, Durangoko Ezkurdi plazan egingo dute Bizkaiko emakume dantzarien ekitaldia, lehenengoz. Durangaldeko sei dantza talde ariko dira emanaldi horretan: Zornotzako Udabarri, Abadiño-ko Iluntze, Atxondoko Andasto, Elorrioko Betsaide, eta Durangoko Tronperri eta Txoritxu Alai dantza taldeak ariko dira Ezkurdi emanaldian. Sestaoko Salleko taldea ere gonbidatu dute emanaldira. Durangoko dantza taldeak dira ekimenaren antolatzaileak, eta eskualdeko emakume dantzariak “eurei eskainitako eguna dantzan” goza dezaten da helburua.

Nesken bizkaiko dantzak aldarrikatu gura dituzte biharko ekitaldian, eta horietan eskainiko dituzte

Emakumeak izango dira biharko ospakizunaren protagonistak, eta ehun dantzari baino gehiago batuko dira Durangoko Ezkurdi plazako ekitaldian. Emakume dantzari taldeetan egiten duten lanagatik esker ona agertuko diete emakume dantzarien Durangoko ekitaldi horretan. Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak “nahikoa puruak ez direlako aintzat hartzen ez dituen nesken Bizkaiko dantzak aldarrikatu” gura dituzte, eta horietan eskainiko dituzte Durangoko biharko ekitaldian.

Emanaldiaren lehenengo partean, sokadantza, agintarrena, gorulari, arku dantza, sagar dantza, kontrapas, ibarbazabal, eusko dantza, eta zinta dantza eskainiko dituzte neskek. Neskak eta mutilak elkarrekin dantzatuko dira emanaldiaren lehenengo partearan amaieran: domingilo eta arku dantza eskainiko dituzte.

Emanaldiaren parte bien artean txalaparta emanaldi labur



Ehun dantzari baino gehiago batuko dira Durangoko Ezkurdi plazako ekitaldian.

bat izango da entzungai, eta, ondoren, Bizkaiko kostaldeko dantzeekin emango dute emanaldia amaitutzat: kaskarot, fandango eta arin-arinarekin.

Ekimena “ez doala inoren aurka” azpimarratzea gura izan dute ekimenaren antolatzaileek: “Alderantziz, gure kulturaren altxorra direlako, zaindu eta mantendu egin behar dira gizonen dantzak, eta gure betebeharra da hori ere”, diote.

Biharko ekimenaren antolatzaileek azpimarratu dutenez, “mutil dantzarien babes osoa” daukate ekimena bultzatu dutenek.

Durangoko hitzordua aldarrikapenerako zita izan dadin nahi dute Durangoko Tronperri eta Txoritxu Alai dantza taldeetako kideek: Bizkaian, nesken dantzak gutxiesteko joera historikoa izan dela uste dute, eta bihar dantza horiei behar duten

aintzatespena emango diete. Bizkaiko Emakume Dantzarien egunak datozen urteetan beste herri batzuetan jarraipena izan dezan nahi dute antolatzaileek.

Neskak eta mutilak elkarrekin dantzatuko dira emanaldiaren lehenengo partearan amaieran

> BERBALDIAK

Krimenaren historiari buruz, mahai-ingurua

Atzo eta gaur, Durangoko Arte eta Historia Museoan burutu dituzte zikloaren mahai-inguruak

> I.E.

Durangoko Arte eta Historia Museoan, atzo eta gaur ari dira burutzen Krimenaren Historia Zentroak antolaturiko XI. mahai-ingurua. *Inoren ondasunekiko zalekeria neurrigabea: jabetzaren kontrako delitua* Historian izenburupean, hainbat berbaldi eta mahai-inguru izan dira Durangoko Museoan.

EHUko, Espainiako Estatuko zein nazioarteko unibertsitateetako adituek eskaini dituzte berbaldiak

Euskal Herriko Unibertsitateko, Espainiako Estatuko zein nazioarteko unibertsitateetako irakasle, aditu, eta doktoreek eskaini dituzte zikloaren barruko berbaldi eta eztabaida saioak.

Durangoko alkateak ekitaldia inauguratu ostean, Bolognako (Italia) unibertsitateko

Marco Cavina irakasleak eskaini zuen Durangoko jardunaldi horien hasierako txostena.

Lapurreteie ikuspegi historiko eta juridikotik begiratu diete Durangoko Krimenaren Historia Zentroak antolatutako jardunaldietan. Itsaslapurreteie buruz jardungo dira, esaterako, gaur, jardunaldiaren arratsaldeko saioetan. Ekaitz Etxeberria eta Oskar Aguado EHUko irakasleek itsaslapurreteie buruz eskainiko duten berbaldiak itxiko du Krimenaren Historia Zentroak aurten antolaturiko zikloa. Gaur, 17:30ean ariko dira. Bizkaiko XVIII. mendeko itsaslapurreteie buruz ariko dira jardunaldiko azken hitzorduan.

Itsaslapurreteie buruz jardungo dira, gaur, jardunaldiaren arratsaldeko saioetan

> ZINEMA

Elorrion geratu da, aurten, 24 Ordu Digitalean lehiaketako sari nagusia

Parte hartu duten 16 taldeetatik erdia baino gehiago Elorriokoak izan dira



Elorrioko Arriola antzokian burutu zuten sari banaketa ekitaldia.

I.E.

Herriko Elorriwood Productions taldearen *Flipauak* lanak irabazi du 24 Ordu Digitalean izeneko Elorrioko film laburren lehiaketa. Aurtengo lehiaketan parte hartu duten 16 taldeetatik erdia baino gehiago herrikoak izan dira, eta oso pozik daude antolatzaileak bai horregatik, bai aurkezturiko lanen kalitateagatik.

Finalista biri ere saria eman zioten azaroaren 2ko Arriola

Herriko Elorriwood taldearen ‘Flipauak’ izeneko lanak irabazi du 24 Ordu Digitalean lehiaketa

antzokiko sari banaketa ekitaldian: Iban Gorriti kazetariaren eta Maritalavista taldearen lanak ere saritu zituzten.

Azaroaren 2an eman zituzten aurreko egunean, 24 orduan,

parte hartzaileek sortu zituzten film laburrak. Antolatzaileek azaldu dutenez, 16 taldek eman dute aurten lehiaketan parte hartzeko izena, eta horietatik 15ek aurkeztu dituzte 24 orduan pentsatu eta grabatutako lanak.

“Inozentzia” izan behar zuten oinarri lehiaketara aurkezturiko lanek; “askoren mina, tontoen atsegina” izan da lan guztietan agertu beharreko esaldia, eta gutunazal bat agertu beharreko objektua.

Kirola

David Garcia | 28 urte, Durango. Korrikalaria

“Pista, apurka, albora izten nabil, eta mendi lasterketak gehiago probatu gura ditut”

Orain asteburu bi, hamalau orduren barruan Durangoko Gau Krosa eta Urkiolako Maratoi Erdia irabazita amaitu zuen joan zen denboraldia David Garciak, eta aurtengoari Soraluze-Bergara lasterketa laugarren urtez jarraian irabazita ekin dio



Joan zen asteburuan laugarren urtez segidan irabazi zuen Soraluze-Bergara lasterketa.

> JOSEBA DERTEANO

Pistak gero eta gutxiago erakartzen du. Hirietako probak eta krosa beti bezain gustuko ditu, eta aurrera begira mendi lasterketen mundua hurragotik ezagutu gura du. Azken asteburu bietan hiru lasterketa irabazi ditu: Durangoko Gau Krosa, Urkiolako Maratoi Erdia eta Soraluze-Bergara proba.

Hamalau orduan lasterketa bi irabazi zenituen orain aste bi. Horrelakorik lortu duzu inoiz?

Hain denbora gutxian lasterketa bi irabaztea ez, baina iaz Berako (Nafarroa) Lizuniaga Igoera zapatuan, eta Ataungo lasterketa domekan lehiatu nituen. Domekakoa irabazi egin nuen. Hala ere, denbora tarte handiagoa zegoen lasterketa bien artean, domekakoa arratsalde zelako.

Zelan joan ziren Durangaldeko lasterketa biak?

Durangokoa laburra zen, lau kilometrokoa, eta oso ondo nengoen. Erritmo aldetik ez zitzaidan gogorra egin. Azken 500 metroetan aldatu nuen erritmoa, eta bakarrik helmugaratu nintzen. Giro aldetik itzela izan zen, ikusle asko batu zen zirkuituan zehar. Urkiolakoan taldetxoan

hasi ginen. Ondo nengoen, hirugarren kilometroan aurrera jo nuen. Apur bat luzetxo egin zitzaidan, baina alde nuenez, egoera kontrolatzen ibili nintzen.

Herri lasterketak edo mendi lasterketak dituzu gurago?

Herri lasterketak gustatzen zaizkit; lasterketa motzak eta arinak dira, itzelezko giroa egoten da, eta jendeak asko animatzen du. Baina orain mendi lasterketak probatzen hasi naiz. Bakoitzak bere gorputza ezagutzea eskatzen du, indarrak neurtu eta kudeatzea. Hori ere gustatzen zait.

Nondik datorkizu korrika egiteko afizioa?

Zortzi urtegar edo hasi nintzen, hemen, Landakon. Niri futbola gustatzen zitzaidan, baina amari ez zitzaion gustatzen futbolaren inguruan sortzen zen giroa: Gurasoak sarritan zarataka... Beste kirol bat probatzea proposatu zidan, eta atletismoan hasi nintzen. Hasieran txarra nintzen, baina apurka-apurka gustatu egin zitzaidan.

Zelakoa izan da pistan eduki duzun garapena?

Txikitan krosak eta herri laster-

ketak egiten dira, batez ere. Pistari dagokionez, gazte mailan Espainiako txapelkun geratu nintzen 5.000 metroan.

Pistako probetan parte hartzen jarraitzen duzu?

Bai, jarraitzen dut, baina egia esateko, gero eta gutxiago. Orain ez zait hainbeste gustatzen pistan aritzea. Nahiago ditut maratoi erdiak, krosak eta antzerakoak. Pistan aritzea gero

“

Pistan erlojuak agintzen du eta beste lasterketetan lortzen den postua da garrantzitsua”

eta gogorragoa egiten zait. Askotan entrenatu beharra dago. Beti sasoi egon behar da, baina batzuetan, sasoi egonagatik ere, markak ez dira heltzen. Nik beti diot pistan erlojuak agintzen duela, eta beste lasterketetan, aldiz, lortzen den postua dela garrantzitsua. Pistan lasterketa bat irabazi arren, denbora, beharbada, ez da espero zena, eta sentsazio hori ez zait gusta-

zen, gogorra da. Hainbeste entrenatu, eta markarik lortu ezin. Buruari bueltak ematen dizkiozu. Ez da eramateko erraza.

Etorkizunari begira norantz jo gura duzu?

Pista apurka alboan izten ari naiz, eta mendiko lasterketak gehiago probatu gura ditut. Hainbatek esan didate: “Mendiko lasterketan ondo ibili zintezke”. Horrelako lasterketetan ez da atzerriko hainbeste jende ibiltzen, marokorak, esaterako, eta postu hobeak lortzeko aukera dago.

Mendi lasterketetan aritzeko prestakuntza diferentea da?

Mendiak asko ibiltzea eskatzen du. Errepidean entrenatu eta mendi lasterketetara bazoaz, hankek sufritu egiten dute. Entrenamenduei dagokienez, nire neska-lagun Aneri eskerrak eman gura dizkot. Sarritan kosta egiten da entrenatzen irtetea, eta bera beti dago ni animatzen. Gainera, lasterketa guztietara etortzen da. Sostengu handia da.

Zelan joan da amaitu berri den denboraldia?

Lehenengo zatia ona izan zen. Donostia-Behobian laugarren

geratu nintzen, eta Santurtzi-Bilbon lehenengo euskalduna izatea lortu nuen. Krosean Bizkaiko txapelketa irabazi nuen, eta Euskadikoan (kros laburrean) hirugarren sailkatu nintzen. Denboraldiko azken lasterketak Durangoko Gau Krosa eta Urkiolako Maratoi Erdia izan ziren.

Zelan gogoratzen duzu Donostia-Behobia lasterketa?

Eguraldi zatarra egin zuen, eurria, haizea... Gorputza berotzea kostatu egin zitzaidan. Lehenengo biek ihes egin zutenean hiru geratu ginen euren atzetik. Esprintean erabaki genituen postuak, eta laugarren helmugaratu nintzen 1.03.25eko denboragaz. Parte hartzen nuen bigarren aldia zen, eta aurten ez dut errepikatuko. Zelan esan? Urtero eginez gero, parte hartzeko motibazio hori apurka galdu egiten da, eta ez dut horrelakorik gura. Orain hiru urte parte hartu nuen lehenengoz, eta iaz bigarrenez. Datorren urtean berriro joango naiz, beharbada. Gainera, helburua beti da aurreko aldiko postua hobetzea, eta laugarren postu bat hobetzea gaitza da.

“

Aurten ez dut Donostia-Behobian parte hartuko; urtero eginda motibazio hori galdu egiten da”

Eta hasi berri den denboraldirako, zein da zure helburua?

Joan zen asteburuan hasi nuen denboraldia, Soraluze-Bergara lasterketaz, eta laugarren bider segidan irabazi nuen. Proba polita da. Bidegorri batetik heltzen zara Bergarara, eta jende betetako kaleetan dago helmuga. Politia eta motibagarria da. Iaz Bilboko herri krosa irabazi nuen, eta aurten ere parte hartuko dut. Santurtzi-Bilbo proban ere iazkoa berdintzea dut helburu, lasterketako lehen euskalduna izatea. Handik aurrera, krosean, otsailean izango den Bizkaiko txapelketa mantentzea gura dut, eta Euskadikoan ea podiumean sartzen naizen.

> ZIKLO KROSA

Elorrioko lasterketak modalitateko onenak batuko ditu domekan

Domekan, Elorrioko ziklo-kros proba izango da San Jose inguruko landetan; Federazio Koparako puntuagarria da; gizonetan Egoitz Murgoitio, Aitor Hernandez eta Aketza Peña etorriko dira, besteak beste



Egoitz Murgoitio domekako lasterketa irabazteko faborito nagusienetakoa da.

> JOSEBA DERTEANO

Elorrioko txirrindulari elkar-teak antolatuta, domekan Elorrioko ziklo-kros probaren 38. ekitaldia lehiatuko dute San Jose inguruko Landetan. Lehen lasterketak 09:00etan hasiko dira, eta elite mailakoa eta 23 urtez azpikoa 13:15ean hasiko

da. Federazio Koparako puntuagarria denez, kadeteetatik nagusienetara (Master 60ra arte) modalitateko onenak etorriko dira. Gizonen elitean Egoitz Murgoitio (Hirumet-Orbea), Aitor Hernández, Aketza Peña eta Jabier Ruiz de Larrinaga dira faborito. 23 urtez azpikoan

Jonathan Lastra eta Kevin Suarez-en arteko borroka espero da. Gazteen mailetan Durangaldeko hainbat ordezkari egongo dira, besteak beste, Gontzal Garcia (Gaurisa Renault) eta Aroa Gorostiza (CAF Engineering) kadeteetan, eta Jon Munitxa (Beste Alde) gazteetan. Muni-

txak gustuko du zirkuitua, eta onenen artean ibiltzea itxaroten dute. Zirkuitua iazko ia berbera da, baina 300 bat metro laburtu dute gazte mailakoentzat ero-soagoa izan dadin: 2.750 metro ditu aurten. Ohiko arrapala eta eskailerak izango ditu, baina tekniko baina gehiago, pedalei gogor eragiteko zirkuitua da.

C1 kategoriaren bila

Igorren Munduko Kopako lasterketa antolatzeari utzi egin behar izan ziotenetik, Euskadi nazioarteko erreferentzia probarik barik geratu zen, eta Joseba Gorostiza Elorrioko txirrindulari elkarteko presidentea azaldu duenez, datorren urtera begira "hutsune hori betetzen" saiatuko dira: "Astelehenetik aurrera 2014an Elorrioko probak C1 kategoria izan dezan saiatuko gara. Zirkuitua, antolaketa eta azpiegiturak baditugu. Dirua da arazoa. C1 proba batean kostua hirukoiztu egin daiteke. Baina bide horretan lan egingo dugu".

> MENDI ASTEA

Iker Arroitauregi Elorrioko Mendi Astean

Azaroaren 15ean, 'Harri aroa' dokumentala eskainiko du eskalatzaile bilbotarrak

> JOSEBA DERTEANO

Erdella mendizale taldeak Mendi Astea antolatuko du datorren astelehenetik barikura. Goi mailako eskalatzaile eta alpinistak etorriko dira Elorriora, tartean Iker Arroitauregi, gaur egun blokeko eskaladan nazioarte mailako erreferente den eskalatzaile bilbotarra.

Arroitauregik *Harri aroa* dokumentala aurkeztuko du Elorrioren. Azken urteetan, Fon-

tainebleaun (Frantzia), Hegoafrikan edo eta Iberiar penintsula osoan zehar zabalduak blokeak, bere lehenengo igoerak... denetarik izango da ikusgai bere dokumentalean.

AEBetan emandako lau urteetan bizitako abenturak (Yosemiteko hormak, Kentuckyko meandroak...) erakusten dituen dokumentalagaz, Esti Kerexeta bilbotarrak hasiko du hitzaldi zikloa astelehenean.

Martitzenean David Villegasek hartuko du lekukoa, eta bere dokumentalak Andeetan, Himalaian eta Alpeetan bizi izandako abenturak islatuko ditu.

Eguaztenean, Igor Mendizabal *Goxerri*-ren txanda izango da. Eskalatzaile eta alpinista gipuzkoarrak Kanadan egindako askotariko eskaladak erakutsiko ditu *Lotus Flower Tower* dokumentalaren bidez.

Egoitz Zubizarreta izango da azken aurreko gonbidatua, eguenean. 2012an Aitor Aranburu eta biek gutxi batzuek baino lortu ez duten igoera bi egin zituzten Patagonian: Cerro Torrerera igo ziren Ferrari bidetik, eta baita Aguja Poincenotera ere Willians bidetik. Horren gaineko dokumentala erakutsiko du.

EGITARAUA

- Azaroak 11, 19:30,

Iturri kultur etxean

Esti Kerexeta: 'Far West'

- Azaroak 12, 19:30,

Iturri kultur etxean

David Villegas: 'La Montaña'

- Azaroak 13, 19:30,

Iturri kultur etxean:

Igor Mendizabal:

'Lotus Flower Tower'

- Azaroak 14, 19:30,

Gaztetxean:

Egoitz Zubizarreta:

'Patagonia Cerro Torre eta

Pointecot mendien igoera'

- Azaroak 15, 19:30,

Iturri kultur etxean:

Iker Arroitauregi: 'Harri aroa'

ADITUAREN TXOKOA



Gotzon Gomez

Errugbia

Rugby League World Cup

Errugbiari buruz ari garenean Rugby Union delakoa inguruan mintzatzen gara. 15 jokalariz osatutako taldea, uztartzea, alboko sarka, *avant-a*, entsegua, zigor kolpea... dira kirol honen ezaugarri berezienak, eta ipar hemisferioko zein hego hemisferioko taldeak aski ezagunak ditugu (Zeelanda Berria, Australia, Hegoafrika, Argentina, Britainia Handiko taldeak eta Frantzia, batez ere).

Baina badago errugbian aritzeko beste modalitate bat, Rugby League delakoa. Bertan 13 jokalaritza aritzen dira. Kasu horretan entsegu bakoitzak 4 puntu balio ditu, Rugby Union partidetan, aldiz, 5; eta zigor kolpeek zein entseguen osteko jaurtiketek 2 puntu balio dute. 5 aukera dituzte entsegua gauzatzeko eta lortu ezik baloiaren jabetza galtzen dute.

Ingalaterrako eremu batzuetan, batez ere, iparraldean, eta Australian oso zabaldua dago modalitate hau, eta Rugby Union delakoak baino entzute handiago du.

Urriaren 26an eman zioten hasiera Cardiffeko Millennium Stadiumen Munduko txapelketari. Faborito nagusien arteko partiduan, Australia Ingalaterrari nagusitu zitzaion 28-20.

Txapelketa honetan hego hemisferioko hainbat irletako taldeak, Europakoak eta AEBkoak ibiliko dira.

Finala azaroaren 30ean jokatuko da, Manchesterren, Old Trafford zelai mitikoan. Ikusteko aukera baduzue gozatu. Hasieran ulertzea zailagoa izan daiteke, baina merezi du. Animo Tata.

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

DURANGON ORDUKAKO TXOKO ALOKAIURUA

688 861 975
info@zuretxokoa.com

ZURE txokoa

www.zuretxokoa.com

Komunikaburua 27. bidea, 3. sol. - 48.100 Durango - BIZKAIA

> MOTORRA

“Garaipena, kilometroak eta esperientzia pilatu ... Denboraldi positiboa izan da”

Igor Urienek Europako F3 Txapelketako azken proba lehiatuko du asteburuan, Kataluniako Montmello zirkuituan; txapelketari neurria hartzeko urtean, oraingoan, garaipen bat eta podium bi lortu ditu



Europako F3 Txapelketako garaipena Monzako zirkuituan lortu zuen, Italian.

> JOSEBA DERTEANO

Europako F3 Txapelketako estreinako denboraldia itxiko du Igor Urienek (18 urte, Abadiño) asteburuan, Kataluniako Montmello zirkuituan. Emilio de Villota taldeagaz, apirilean ekin zion txapelketari Frantziako Paul Ricard zirkuituan, eta hurrezkeroko Portugal, Erresuma Batua, Belgika, Alemania eta

Italiako zirkuituak bisitatu ditu, Dallara F308 formularen barruan. Mailari neurria hartzea zuen helburu bakar aurreneko urtean, baina podium bi eta garaipen bat (Monzan) lortu ditu. Horiek horrela, azken lasterketaren atarian orain arte egin dakoagaz “oso pozik” dagoela adierazi du: “Denboraldi positiboa izan da. Zirkuitu askotan eta

baldintza ezberdinetan lehiatu naiz. Autoagaz kilometro asko pilatu ditut, eta esperientzia hori oso baliagarria zait. Garaipen bat ere egon da tartean. Aurten go helburua ikastea zen, eta beti geratzen da zer hobetua, baina nahiko ikasi dudala uste dut”.

Egunik gogoangarrietako bat Monzan (Italia) lortutako garaipena (F308 kategorian)

izan zen: “Aurreko lasterketetan arazo batzuk izan genituen, eta horrelako garaipen bat lortzea oso pozgarria izan zen”.

Arriskua ere bertatik bertara ezagutu du Urienek. Belgikako Spa zirkuituan, aurretik zihozen monoplaza batzuek istripua izan ostean, atzetik zetozenek ezin izan zuten zirkuitu erdiko nahaspila ekidin, ezta Urienek berak ere. Dena dela, ez omen zen izan kanpotik ikusita uste zitekeen bezain arriskutsua: “Kolpea izan zen, baina barrutik lasai samar bizi izan nuen, ez zen hain ikusgarria ere izan”.

Kataluniako probaren ostean atsedean hartu, eta datorren urtera begira jartzeko unea etorriko da. Aurrekontua segurtatzen bada, printzipioz, beste bi urterako kontratua sinatuta du Emilio de Villota taldeagaz.

Maria de Villota gogoan

Denboraldiari egindako errepasoan, Maria de Villotaren heriotza ere gogoratu du pilotu abadiñarrak: “Formuletan hasi nintzenez euren eskolan ibili nintzen, eta Maria nire irakasleetako bat zen. Familia osoa lez, oso hurbilekoa eta jatorra zen. Gauzak ondo ez zihozenez ere irribarrea mantentzen zuen, eta nik uste denoi kutsatzen zigula bere bizipoza”.

> PILOTA

Finalerdien bila Aspuru eta Azpiri Olazarren

Asier Aspuru abadiñarrak lau t'erdian, eta Igor Azpirik binaka, final-laurdenak jokatuko dituzte

> JOSEBA DERTEANO

Zaldibarko Olazar Pilota Txapelketan final-laurdenei dagozkieen partiduak jokatuko dituzte datorren egunean, 21:30etik aurrera. Finalerdietara sailkatze-ko borrokan Durangaldeko pilotari bi ariko dira: Asier Aspuru abadiñarra lau t'erdian, eta Igor Azpiri elorriarra binaka.

Aspuru partidu gaitza dauka Dario Gomez errioxarraren

Igor Azpirik eta Kerman Galarzak Aitzol Dorronsoro eta Miguel Perez arabarrak izango dituzte kontrario

aurka. Abadiñarrak orain arte txapelketa bikaina osatu du, eta datorren egunean ere bere mailarik onena eskaini beharko du errioxarra kanporatu eta finalaren atarira heltzeko.

Igor Azpirik Kerman Galarza galdakoztarra izango du bizkarzain. Bizkaitarrek Arabako bikote bat izango dute aurkari: Aitzol Dorronsoro amurriarra eta Miguel Perez gasteiztarra. Atzean Perez agindu behar luke, Galarza baino jotzaileagoa delako, baina Perez galtaileagoa ere bada. Galarzak normalean bezain seguru jokatzen badu, aurrean borroka ederra eskaini dezakete Azpirik eta Dorronsorok. Biak ala biak pilotari biziak dira, eta errematerako beti prest daudenak.

> TXIRRINDULARITZA

Euskadi Fundazioko ziklistak “minduta”

Euskadi taldeko ziklistek gutun bateratua atera dute; tartean Zuazubizkar eta Bizkarra daude

> JOSEBA DERTEANO

Neor Group enpresak jarritako diruagaz Euskadi Fundazioa taldeak aurrera jarraituko zuela zirudienean, joan zen astean alde bien arteko akordioa apurtu egin zen. Egoera horren aurrean txirrindulariek gutun bateratua zabaldu dute. Tartean Illart Zuazubizkar abadiñarra eta Mikel Bizkarra mañariarra daude. Lehenengo berbak Jon Odriozolaren gainekoak dira: “Taldeak ilusioa sortu du txirrindulariongan, eta minduta sentitzen gara. Gure ustez baztertu egin dute Jon Odriozola, proiektu berriko burua. Odriozolak lan handia egin du euskal txirrindularitzaren alde; bai txirrindulariongatik, eta bai zaleengatik. Horregatik eskerrak

eman eta lanean jarraitu dezala eskatu gura diogu”.

Ondoren indarrak batzeko deia egin dute: “Denok batera eta helburu berarekin egin behar dugu lan. Euskal txirrindulari guztien, eta, batez ere, jarraitzaileen parte-hartzea eskatu nahi dugu: zuen beharra dugu, txirrindulari eta jarraitzaileak gara kirol honen motorra”.

“Jarraitzaileen parte hartzea eskatu nahi dugu; txirrindulari eta jarraitzaileak kirol honen motorra gara”

AGENDA**> FUTBOLA****HIRUGARREN MAILA**

Durangoko Kulturala-Bermeo
· Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

OHOREZKO MAILA**Iurretako-Erandio**

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaietan.

MAILA GORENA**Abadiño-Zaldia**

· Zapatuan, 15:30ean, Astolan.

HIRUGARREN ERREGIONALA**Zaldia B-Gernika Sporting**

· Zapatuan, 16:00etan, Solobarrian.

> ARETO FUTBOLA**HIRUGARREN MAILA****Elorriko Buskantza-Soloarte**

· Zapatuan, 18:00etan, Elorriko udal kiroldegian.

MAILA GORENA**Elorriko Buskantza B-Sestao**

· Domekan, 12:00etan, Elorriko udal kiroldegian.

Presion Break-Elorrietako Senses

· Zapatuan, 16:30ean, Berrizburun.

Sasikoa B-Ibaizabal

· Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

LEHENENGO ERREGIONALA**Dantzari-Elorriko Buskantza C**

· Zapatuan, 16:00etan, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan.

BIGARREN ERREGIONALA**Mallabia B-Mendibeltz**

· Domekan, 16:00etan, Zaldibarren.

Racing Tolosto-Biarko Gizonak

